

Behar direlako tituluak



MALORES ETXEBERRIA



PAULA ESTÉVEZ

Benetan nahasia da euskara ikas- teko dirulaguntzen kontu hori. Euskara ikasi nahi duen herri- tarrak leihatila bat baino gehia- gotara jo beharko du egin nahi duen ikastaroa zenbat kostatuko zaion eta dirulaguntzak nondik, nola eta noiz lortuko dituen jakiteko. Oraindik ere dirua balio baitu ikasteak, ezer ez da doan inon, eta, era berean, aldeak badi- ra mailatik mailara eta lekutik lekura. Anabasa hori argitzeko baliagarria da aldizkari honetan bertan, azaroaren 24ko zenbakian, Onintza Irureta Azku- ne kazetariak argitaratu duen *Pausoak pauso, oraindik hankamotz* izeneko erreportajea.

“Doakotasunaren” publizitaterik handiena lkarurte hasieran egin zuen HABEk, iragarri zuenean A1eko, hasie- ra-hasierako mailako, ikasleentzat doa- koa izango zela euskara ikastea lehen maila horretan. Pixkanaka jakin dugu doan ez, baizik eta merkeago dutela matrikula: 300 euro izan beharrean, 70 euro ordaindu behar dutela, alegia. Eta ez du argitu ikasprozesuan aurrera egi- teko hein berean laguntzen jarraituko duenik ere.

Bide luze eta malkartsu horretako beste pauso bat iaz eman zuen Eusko

Jaurlaritzak, eta oso bestelako kolektibo bati zuzenduta zegoen. 16 urtetik 18ra bitarteko gazteak zituen jomugan; ho- riei C1 (lehenengo EGA) titulua prestatze- ko eskolak “doan” eskaintzea. Bi gauzak harritu ninduten orduan. Batetik, lehen- tasuna titulua eskuratzeari ematea eta, gainera, adin tarte jakin batera mugatu- ta. Bestetik, ikasketak euskaraz egiten ari diren ikasleak institututik euskal- tegira joan behar izatea, eskola orduz kanpo, euskarazko titulua prestatzera.

Aipatutako erreportajearen adieraz- ten da pizgarriek izan dutela eragina euskaltegietara inguratu diren ikasle kopuruetan. Eta 16tik 18 urtera bitar- teko gazteetan, hain zuzen ere, bikoiztu egin dela kopurua. Iazko ikasturtean 2.700 ikasle izan ziren eta aurtengoan, berriaz, 5.000 inguru, EAEko kopuruei erreparatuta.

Izango dira aldeak lekutik lekura, baina zenbait ikastetxetako datuak eza- gututa, ikasleen erditik gora doa euskal- tegira titulua ateratzeko prestatzeta egi- tera. D ereduak ikasi duten eta ikasten ari diren gazteak dira, Batxilergokoak nagusiki. 120-190 ordu arteko ikasta- roak egiten dituzte, autoikaskuntza mo- dulan batzuek eta aurrez aurrekoan beste batzuek; eta matrikula prezioa 30

euro ingurukoa da, 0,20 euro orduko, euskaltegiko eskaintza guztietan mer- keena.

Pentsatzen dut azterketen emaitzak hobetu egingo direla eta gazte gehiago aterako dela institutuetatik C1 titulua- ren jabe. Institutuetako irakasleentzat lagungarria ez ezik aringarria ere izan- go da, ez baita gozoa euskaraz ikasitako hainbeste ikasleek titulua eskuratzeko azterketa suspenditzea (gertatzen den bezala). Gurasoak ere pozik, lan mun- durako baliagarria izango zaien beste titulu bat gehiago badutelako beren seme-alabek, merke eskuratua. Euskal- tegietan ere haserre ez, ikasle gehiago dutelako eta, gainera, urtetik urtera ja- rraipena izango duen bezeria gaztea, iraileko matrikulazio garaiko agonia go- xatuz eta ikasleria gaztetuz.

Nik, galdera bat buruan jiraka: komu- nikazio-gaitasunean hain ahul gaude- nean, herritarren gehiengoak ulertzeko ere zailtasunak dituela eta dakiten as- kok hitz egiteko erraztasunik ez, lehen- tasunezkoa D ereduak 16-18 urte bitar- teko gazteei titulua eskuratzeko klase partikularrak ematea ote da? Ez ote da Hezkuntza Saila ari irakaskuntzaren ezinaz berriro ere beste pixka bat estali nahian? ●